

...eta **kitto!**

786 zkia. 2011-XII-16

ASTEKARIA

TOKIKOM

Etxeko lanak arautzeko bidean

Ez galdu
ez beste garagalekin
2x1

Informazio gehiago gure webgunean: www.kittoa.net edo deialdean: 943 20 05 22. Etxe eta enpresa lanak bakarrik.

Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIOPTICAS
lehen zerbiltzu optikoetan



IRAZABAL
clínica dental

Antonio Murillo doktorea

PERIODONTZIA, INPLANTOLOGIA, AHO-KIRURGIA

Ainhoa Zulueta doktorea

ODONTOLOGIA OROKORRA, PROTESIAK, ESTETIKA

Susana Sierra doktorea

ORTODONTZIA, OKLUSIOA

ORDUTEGIA:






Astelehenetik ostegunera: 10-14 / 16-20h

Ostiraletan: 10-14 / 15-19h

IRAZABAL HORTZ-KLINIKA

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52

www.clinicairazabal.com - info@clinicairazabal.com





ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkartea
HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:
erredakzioa@etakitto.com
komunikabideak@etakitto.com
publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:
elkartea@etakitto.com
normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Maidier Aranberri
Ekhi Belar

Jose Luis Gorostegi
Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena
ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEÑUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe, E. Belar

eta S. Hernandez

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidier Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

Gaztelupeko Hotsak

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

8.050 ale

INPRIMATEGLIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!*) ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

IGABERA.- Uretan ibiltzen den ugaztuna. Urtxakurra ere esaten zaio. Erderazko 'nutria'. "Gu gaztiak giñala hill eben Errebaleko zubipian gure erreko azkenengo igaberia".

IGARILEKU.- Igerileku, pizsina. Eibarren edadeko jendeak normal erabiltzen du. "1934an Amañako presa onduan, Barrenengua basarri azpitan egin zan Eibarko lehenengo igarilekua".

ESKUTITZAK

ESKERRIK ASKO GUREKIN PARTE HARTU ZENUTEN GUZTIOI

Eskerrik asko Euskararen Eguneko mintzodromoetan parte hartu zenuten guztioi. Eskerrak ematen dizkizuegu Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko, abenduaren 2an eta 3an **Mintzodromoetan** parte hartu zenuten ikastetxe, talde, elkarte eta herritar guztioi. Era berean, eskerrak ematen dizkizuegu parte hartu nahi, baina bertaratzea ezinezkoa egin zitzaizuen guztioi.

Gure eskerrik zintzoena Euskararen Eguna herri mailan bideratu dugun hirugarren urte honetan, aurrekoetan bezalaxe, erakutsi eta adierazi duzuen borondate on, gogo, prestutasun eta esker onagatik. Eskerrik asko ekitaldiaren aurretik, ekitaldian bertan eta ekitaldia bukatuta eman diguzuen laguntzagatik. Aurreko urteotan bezain hunkigarria izan da egun hau zuokin guztioi ospatzea.

Zorionak guztioi, eta jarrai dezagun urteko gainerako egun guztietan ere euskararen eguna ospatzen!

EUSKARA ETA KULTURA BATZORDEA, UDAL EUSKALTEGLIA, AEK, HIZKUNTZA ESKOLA, EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ ETA ...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA

PAGO BERRI BAT PARLAMENTUAN

Datorren domekan, abenduaren 18an, Juan Luis Ulaziaren omenez pago bat aldatuko da Kalamuako parlamentuan. Klub Deportiboko mendizale bat mendi istripuz hiltzen bada, bera oroitzeko zuhaitz bat aldatzeko ohitura dute Deporrek mendizale taldekoek. Ohitura hori Andoni Arza 1996an hil zenean sortu zen; ondoren Oier Arkotxa eta Edu Gorrotxategi 1999an Balaitusen hil zirenean jarraitu zuen eta orain artean azkena aldatu zen zuhaitza Gaizka Sola Atxarten 2008an hil zena oroitzeko izan zen.

Dakigun moduan, aurten irailaren 25ean zendu zen Juan Luis Ulazia, Midi d'Ossaun izandako istripu baten ondorioz. Beraz, ohiturari jarraituz, lehen aipatu bezala, datorren domekan, goizeko 11.30etan pago berri bat aldatuko da Parlamentuko basotoan. Juan Luisengatik eta mendian hiltzen diren mendizaleengatik zerbait sentitzen duzuen guztioi gonbidatuta zaudete. Mila esker.

Bide batez, senide eta lagunek eskerrak eman nahi dizkie lursailaren jabe diren Baskaran errota baserriko baimena emateagatik. Nahiz eta eibartar gehienok pentsatu inguru hori Eibarko herriarena dela, lehen aipatutako Markinako baserri horren lurra bait da.

KLUB DEPORTIBOKO MENDI TALDEA

asteko

HEMEROTEKA

esaldiak

"Ezerk ez du ziurtatzen munduak hobera egingo duenik. Gaur egungoa ez da krisi ekonomikoa, ezta gutxiagorik ere; askoz ere zabal, larri eta kezka-garriagoa da. Zer da hazkunde ekonomikoa? Soluzioaren muina ala galbidearena? Uste dut ez dagoela adorerik euskal politikagintzan galdera lotsagabe hori egiteko; beharbada, Europa osoan ere ez dute adorerik. Norbaitek artsenikoa jarri digu plater batean: lasai asko jaten jarraitzen dugu eta, gainera, plateraren goxoa txalotzen dugu"


(Joseba Azkarraga Etxagibel, soziologoa)

"Nork bere estiloa dauka, eta batzuek ez dute estilorik. Prosa ulertterazza idatzi beharrez, euskalgintzaren izenean, azkenean prosa administratibo bat idazten da askotan, eta Administrazioak oso gaizki idazten du, oso prosa pedagogikoa egiten du, nolabait esateko. Ez dut laborategi bat muntatu estilo bat sortzeko; ez naiz ibili baliabide gramatikalak kentzen estilo bat osatzeko. Baina ezinezkoa iruditzen zait esplikazioetan galteza: 'alegia' eta 'bai, zeren eta...' ez zaizkit gustatzen"

(Koldo Izagirre, idazlea)



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

Euskeraren Nazioarteko Eguna ospatu zen duela aste bi. Eibarren 2009an hasi ziren eguna ospatzen Juan San Martinen Zirikadak eta Eztenkadak liburuen jendaurreko irakurketarekin, eta iaz jende asko bildu zen Kantu Kantari kalejira parte-hartzeko. Aurten Mintzodromoa egin da Untzagan.

Hilaren 2 eta 3an euskera Untzaga plazara ekarri ditu herriko elkarte, euskaltegi, ikastetxe eta herritarrek, eta ekimenak arrakasta osoa izan zuen. Adin guztietako pertsonak hurbildu ziren bertara egun bietan zehar (barixakuan ikastetxeetako umeek bete zituzten Untzaga Plazan kokatutako karpa, eta zapatuan 12.30etatik 14.00-etara elkarte, euskaltegi eta bestelako herritarren txanda izan zen udaletxeko patioan).


Euskeraz berba egitea zen ekimenaren helburua, batuz zein eibarreraz. Izan ere, mahai batzuetan eibarreraz egiteko aukera luzatu zitzaizen Mintzodromora hurbildu zirenei. Lau laguneko taldetxoetan banatuta, mahai baten inguruan batu ziren parte-hartzaileak eta lagun giroan berbetan jardun zuten eguneroko gaiei buruz.

Mintzodromoak izan zuen harrerarekin oso pozik agertu ziren antolatzaileak eta, ikusi ahal izan zenez, euskera plaza-ratzea lortu zuten hara hurbildu zirenek.



EUSKARAREN EGUNA

argazkiak: EKHI BELAR & LEIRE ITURBE



Hiru gairen bueltan, ehun lagunetik gora batu ziren Mintzodromoan.





Jendez gainezka, aurrikuspenak gainditu zituen ...eta kitto!-ren ekimenak.



Giro zoragarria Gurasoak Berbetan Egunean

Antolatzaileek egindako aurreikuspen guztiak gainditu ziren Gurasoak Berbetan Egunean. Demaseko arrakasta izan zuen ...eta kitto! Euskara Elkarrekin antolatutako ekimenak eta jende ugari bildu zen hilaren 3an, zapatua, Untza-

ga plazan kokatutako karpara. Goiz eta arratsaldean eskulanak, jolasak eta erakusketa egon ziren martxan. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako guraso eta umeak hurbildu ziren bertara, eta ekimenaren helburua gurasoak seme-alabei euskerarekiko

jarrera positiboa erakusteko duen garrantziaz jabetzea zen. Gurasoak Berbetan Egunean hurbildu zen jendea eskerrak eman nahi dizkie antolatzaileek eta oso pozik agertzen dira ekimenak izan zuen arrakastaren aurrean.



"LAGUN BATEK GOMENDATUTA BERRIKUSI NUEN NIRE ENTZUMENA. ETA NIK MUNDU GUZTIARI GOMENDATUKO NIOKE."

GAES
Entzumen Zentroak

20
Etan Gabonetan %20 arteko deskontuarekin

Bai, ondo entzun duzul.




Bidebarrieta, 2 • Tel.: 943 20 61 14 • EIBAR

...eta Euskara E Gabon KATAI



SOKADUN
ESKUMUTURREKOA:
11,80 euro



KATEA:
9,45 euro

LAUBURU
ZINKILIKARIOA:
15,80 euro

EH ZINKILIKARIOA:
22,60 euro



NAGUSIENDAKO
KAMISETAK (S-M-L-XL-XXL):
25 euro



UMEENDAKO
KAMISETAK (4 URTETIK 12RA):
20 euro




BABEROA:
15 euro

ZIBA:
7 euro




AMANTALA (LAUKIAK):
T: 1, 2, 3, 4
34 euro



ABANIKOA:
5 euro

JOKOA:
9 euro



PELLO ZABALA HIGROMETROA:
33,50 euro



ARGAZKI MARKO ERTAINA:
14 euro

ARGAZKI MARKO HANDIA:
16,50 euro



KITTO-AMANTALA:
10 euro





KITTO-AMANTALA:
15 euro

Etorri Olentzerori zerrenda egiten laguntzera. Egunero, ...eta kitto! Euskara E
ASTELEHENETIK BARIKAKURA, 10.00etatik 13.00etara / 1

IKUSI, AUKERATU eta EGIN

kitto! Elkartearen Metakoa KATALOGOA

DISKA ETA DVDAK



Katalogoak dituen irabaziak euskera sustatzen erabiliko ditugu

TIRAGOMA:
3 euro







MAHAI-GAINEKOA:
11,60 euro




ARBOLARAKO
OLENTZERO:
3,50 euro



KATILU TXIKIA:
7 euro



ATERAKO ALFONBRA: 12 euro



eta
kitto!
Euskara Elkarte

KARRIKIRI
EUSKARA ELKARTEAREN ELKARTEA


Elkartearen bulegoan (Urkizu, 11)
16.30etatik 19.30etara

ENKARGUA!



asteko
76
datua

herrialdeetako bisittak hartu ditu www.egoibarra.com-ek. lazko 11.230 bisittetara ez ailegau arren, erabili dabenak denpora gehixago emon dabe konsultak egitten, 2 miñutu eta 46 segundo batzbeste. %56'85 Google bittartez sartu dira, %24'44 beste orrixetako loturen bidez eta %21'87 zuzenian helbidia idatzitta.




EAJ gobernu-taldetik kanpo


PSE-REKIN HAINBAT BILLE-RA EGIÑ OSTIAN, Eibarko EAJk Udaleko gobernu-taldian sartziari uko egin detsala azaldu eban atzo prentsaurrekuan. Jeltzaliak esandakuaren arabera, alderdi bixak ez dabe adostasunik lortu garrantzi haundiko hainbat kontutan eta, horregaittik, taldian sartu ahal izateko biharrezkuak diran baldintzarik emon ezian, legegintzaldi honetan oposiziñotik biharrian jarduteko erabagixa hartu dabe EAJko ordezkariak, gobernu-taldiarekin bat egitteko PSE alderdixak egingdako eskintza eskertu nahi izan badabe be.

Sua Arragueta kalian

EGUAZTENIA SUA PIZTU ZAN ARRAGUETA KALEKO 18. ZENBAKIXAN, azken pisuetan. 13.00ak aurretik Ertzantza,



suhiltzailliak eta udaltzaiñak han ziran. Segurtasun neurrixak beteta, trafikua moztu eben kalian, Bittor Sarasketatik desbideratuta. Arratsaldian lortu eben sua amatazia eta teknikuak, kaltiak ikusitta, etxe bi bizitzeko desegoki geratu dirala emon dabe aditzera.




Kalia moztu bihar izan zeben. / EKHI BELAR

Errebali buruzko eztabaida eskatu dau Bilduk

BILDUK MIGUEL DE LOS TOYOS ALKATIARI ERREBALGO ERABILLERIAREN GAIÑEKO EZTABAIDA ABIARAZTEKO eskatu detsa.

Izan be datorren asteko martitzenian, hillaren 20xan pleno berezixan, Udal gobernuak Errebalen parking pribatua eraikitzeo proiektua onartzeo asmua dakala aurreratu dabe Bilduko ordezkariak: *“Udaleko ogasun batzordiak PSE, PP eta PNV-ren botuekin onartutako proposamenetik ideia bi azpimarratu nahi dittugu: alde batetik, Errebalen parking publikua kendu eta parking pribatua jarri nahi dabela (Txomon daganaren modokua) eta, bestetik, beti be parking-aren erainkuntza merkatal gune bati soilik lotuta agertzen dala”* eta horrekin ados ez daguezela argi laga nahi izan dabe. Proposau daben prozesu parte-hartzailliak, gaiñera, Diputaziñuak diruz-laguntzeo aukeria daguala diñue. Bestalde, Joseba Salbide arkitektuak karrera-



Joseba Salbideren proposamenaren montajia.

amaierako proiektuan landutako proposamena kap-errebal.blogspot.com blogian ikusi leikiala azaldu dabe.

...eta kitto!-ren oterra 1.491 zenbakixarendako

EGUAZTEN GOIZIAN EGIÑ EBAN ...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEAK GABONETARAKO OTARRAREN IRABAZLIA aukeratzeko zozketia alkartiaren buleguan bertan eta aurtan sarixa eruangi daben zenbakixa 1.491 izan da (Eneko Silvak saldutakua). Irabazliak sarixa erreklamatzeko 15 eguneko tartia eukiko dau, gaurtik kontatzen hasitta. Horretarako zuzenian ...eta kitto!-ra juan leike (Urkizu, 11 solairuartian) edo telefonoz deitzeo aukeria be badaka (943-200918 zenbakixa). Sariduna agertzeo epia

beteta iñor agertu ezian, oterra Ainara Lavadok saldutako 0035 erretserbako numerua dakanak



Beste zeregin batera gurera etorritako emakumeak atera zuen zenbakia.

eruangi dau. Edozelan be, oterra irabazi ez dozuenak ondo gorde erosittako txartelak, hillaren 22xan egingo dan Gabonetako loterixako zozketan sariren bat jasotzeo aukeria oindiok badakazue eta, txartel bakotxarekin 2'5 euro jokatzen dira-eta 33.151 zenbakixarekin. Bide batetz, ...eta kitto! Euskara Elkarteak eskerrak emon nahi detsez Gabonetako loterixia saltzen lagundu detsen guztieri eta erosilieri, barriz, eskerrak emotiarekin batera zorterik onena opa detse datorren astian Madrillen egingdako zozketarako.

Ospitala egitako orubia erosiko da

**ALDEKO 11 BOTO ETA KON-
TRAKO 10 BOTOREKIN OTA-
OLA HIRIBIDEKO ORUBIA,** aurretik Mendiguren y Zarraua enpresiak bete eban terrenua erostia onartu eban aurreko astian egindako plenuan. Erosiko daben terrenua 4.954.000 eu-

rotan dago tasauta eta, hortik aparte, 2013an hasi leikiazen obrak 15.000.000 euroko presupuestua biharko dabela aurreikusten dabe agintarixak. Erosketia onartu ostian, Miguel De los Toyos alkatiak prentsaurrekuan eskindu eban proiektuaren gaiñeko baloraziñua eta, bestiak beste, "herrixaren etorkizunerako garrantzi haundixa eukiko daben akordixua izan da honen inguruan lortu barri daben hori". Bestalde, Osakidetzarekin hitzarmena siñatu dabe aste honetan bertan, lurraren salerosketia egiñ eta Osakidetzari ospitala jasotzeko lurak emonda. Udaleko beste alderdixak behin baiño gehixagotan kejatzen jardun dabe azken aldixan, Udalgobernuak proiektua aurrera etaratzeko orduan jardun daben modurengaittik, baiña alkatiak "herrixaren interesen alde gardentasun osoz" jokutzen diharduela esanda erantzun detse bestiak egindako kritikeri.



Gaztetxe barrixak 100 egun

**ABUZTUAREN 24-AN CADE-
NAS IRIS-EK HUTSIK LAGA-
TAKO ETA ERABILLI BARIK** eguan eraikiña okupau eban hainbat gaztek, bertan gaztetxe barrixa sortzeko asmuarekin eta harrezkero 100 egun igaro dirala-eta, aurreko asteko zapatuan prentsaurrekua eskindu eban gaztetxiaren atarixan, denpora honetan egindakuen barri emon eta baloraziñua egitako. Euren berbetan, eta hasieratik zittuen helburueri jarraituta, "herrixan gune libre bat sortzen dihardugu". Horretarako gogotik biharrian dihardue lehelengo egunetik

hasitta: uraren eta argindarraren instalaziñuak konpondu dittue, kontzertu zein bestelakuak eskintzian soñiña kanpora ez urtetzeko insonorizaziñua ipintzeko biharrian hasitta dagoz eta teillatu gaiñeko terrazan baratza atontzen dihardue baitta be. Gaztetxia okupau eta segiduan hasi ziran jarduera diferentxiak antolatzen. Bestiak beste, jaixak, kontzertuak, antzekizunak eta hitzaldixak eskindu dittue Iparragirre kaliaren hasieran dagan gaztetxian, "eta horrerri esker eraikiñak zekan aurpegi gris eta tristia kolorez betetzen hasi da". Horrek




batera barixakuoro bertan baten dirala gogorarazi nahi detse jendiari eta proiektuan parte hartzeko inbitaziñua luzatu nahi detse herrittareri.

Toribio Etxebarria Sarixak martxan

EGUAZTENIAN PRESENTAU ZITTUAN TORIBIO ETXEBARRIA SARIXAK Miguel de los Toyos alkatiak eta Maria Luisa Arriola BIC-Gipuzkoa

Berrilan-eko zuzendarixak. Sormena eta Eraberrikuntza Teknologikua Enpresan eta Enpresa Asmuak atalak bereizten dittuen sarixak arlo horretako inportantienak dira, sarietan banatzen daben diru kopuruari begiratzen hasiz gero. Izan be 22. ediziñua beteko daben sarixetan 100.000 euro banatuko dittue eta, alkatiaren berbetan, "krisixari aurre egitako laguntasun alternatibua izan leikez sarixak".



Azken edizioko irabazleak euren sariekin.

autuan

ABEGI FAMELIXAK

Txernobillen lagunak GKEiak 2012ko udan Ukrainiako umiak etxian hartzeko prest daguezen famelixak bihar dittu. Kutsatutako ingurutik urtetzen daben umien osasunak modu inportantian hobera egitten dau eta, horregaittik, umiak hillebete pare batian etxian hartzera animau nahi dabe jendia. Informaziño gehixago nahi dabenak www.chernobilenlagunak.com helbidera jo leike edo 689586277 telefonora deittu.


'STOP AND GO' ESKILLARA GEHIXAGOTAN

Bustinduitarren, Asola-Igartza, Urki eta Polonia Etxeberria kalien arteko eta J.A. Gisasola eta R. Galdos kalien arteko eskillara mekanikuetan 'Stop and go' energixagastua murrizteko sistemian ipiñi dabe oin dala egun gitxi, proba moduan ipiñittako beste puntuetan sensore bidezko sistemian egokixa izaten diharduela ikusitta. Sistema horrek in eskillarak bakarrik baten batek erabiltzen dittuanian ipintzen dira martxan eta inor ez badago, barriz, geratu egitten dira, energixia alperrik galtzia saihestuta.

UCAS ARRATE

Eibarren erreskate-txakurrekin biharrian diharduan taldiak, bere jardunian dittuen gastuekin lagundu nahi detsen denda eta bestelakuendako "2012rako laguntzaille" modura identifikatzeko pegatiñak etara dittu. Laguntzeko prest daguezenak 629894590 telefono zenbakira deittu leike.

Etxeko-lanak ondo baloratuta dagoz?




LOLI NOVOA
41 urte
etxeoandria

Ez da baloratzen, ez etxeoandrieri, ez bestien etxietan lan egiten dabeneri. Gitxi ordaindu eta asko exijitzen jakue. Etxekoandrieri ordaintzia gaitza da gaur egunian dagan krisixarekin, baiña hitzarmen antzeko bat egin beharko zan euren lanarengaitik dirua jasotzeko.

JORGE GARCÍA
30 urte
igeltserua

Iñoiz ez dira etxeko-lanak baloratu. Etxekoandrien egoeria erregulatu egin beharko zan; horren gainean ikasi daben jendiak ikusi beharko leuke zer egiñ. Izan be, etxeoandriek lan bat egitten dabe eta ez da baloratzen. Eta etxeoandria banandu egitten bada? Ez dau ezer eukiko.




MIKEL LORENZO
39 urte
arotza

Nere amak etxiak garbitzen egitten dau biharra eta esan ahal dot ez dala bere lana baloratzen. Beti bihar dana baiño ordu gehixago sartzen dittu, txarto ordaintzen detse... gitxi baloratzen da lan hori, berak eta bere antzeko bihargiñek egitten dabena kontuta hartuta.

CRISTINA GALLEGO
30 urte
bihargiña

Begittantzen jata etxeoandriak egitten daben lana ez dala bihar dan moduan baloratzen. Etxiak garbitzen lan egitten dabenen kasuan ez dakitt, ez dot ondo eza gutzen. Bestetik, ez dakitt etxeoandrieri ordaindu bihar jakuen, baiña argi dago ez jakuela bihar dan moduan baloratzen.



Mara
Mara

MENDI
KIROLAK

ARRAGUETA
KALEA, 10
EIBAR
943-702063

EGOTZA NAGUSIA
Bilbarraketa 20 - behea, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del
Bajo y Alto Daba

Tanatorio eta Erreusketako labori
Egilerian (lignu poligonoz)
Partikular: eskua eta desagun eneri zerbitzuak
Kiooki - Eskala - Utzarrenko eskala
Eskala Hant eskala eskalaren tartean zatiago
Nazio eta Nazioarteko itzuleak


Mugica
Ehorzketa

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

Zorionak





**K
a
r
e
a
g
a**



BIDEBARRIETA, 10 -EIBAR-

Etxe barruko bihargiñen lan baldintzen inguruko jardunaldixak hartu ditu Portaleak aste honetan, Udalak, Lanbidek eta sindikatuak antolatutako saio bikoitzian. Garbittasunarekin zein bestelako egin biharrekuekin lotutakuak egitten biharrin diharduenen errealidadia ikuspegi diferentietatik aztertu eta azaltzeko asmuari jarraituta antolatutako jardunaldixetako lehelengo saiaua etxian baten bat biharrin daken famelixeri zuzendutakua izan zan eta bigarrenian, barriz, lau sindikatuetakoa ordezkariak batu zittuen mahaixan, bihargiñeri euren eskubidien gaiñeko dudak zuzenian argitzeko asmoz. Historikoki oso baldintza eskasetan egiñ izan dan lanbidia beste edozeiñ ofizioaren parian ipintzeko borrokia luzia izanda be, betidanik oso esker txarrekoa izan dan lanbidia bihar dan moduan arautzeko egin biharreko bidiak luzia izaten segitzen dau.

Urte barrixa hastiarekin batera, etxe barruko bihargiñendako aurten onartutako erret dekretua indarrian sartuko da eta, teorixan behintzat, horretan biharrin diharduenen lan baldintzak hobera egingo dabe, beste edozein lanbidetan aplikatzen dan Bihargiñen Estatutua honetan dihardueneri aplikatzen hasteko oindioñ denporia pasau biharko dan arren. Baiña, edozelan be, apenas eskubiderik aitoritu ez daben sektorian diharduenak euren lan baldintzak moduren batian arautuko dittuan dekretu barrixa begi onez ikusten dabe, askoren iritiz lehelengoz euren egoeria erregulatzeko benetako ahalegiña egin dalako. Izan be, salbuespenak salbuespen



ETXE BARRUKUAK sukaldetik etaratzen

ALDAKETA NAGUSIÑAK

- Oñ arte erregimen berezixa izandakua Seguridade Sozialaren erregimen generalaren parte izatera pasauko da.

- Integraziñuak inskripziño eta afiliaziñuan aldaketak ekartziarekin batera, kotizaziño eta rekaudaziñuan be kanbixuak eragingo ditte eta babes haundixagua eskinduko detse bihargiñeri.

- Bihargiñari lana emoten detsan familia-buruak kotizaziñorako numerua eukiko dau derrigorrez

- Kotizaziño eta rekaudaziñuari lotutako arluan be kanbixuak egongo dira eta, bestiak beste, jasotakuaren araberako kotizaziñuak eskala bateri jarraituta egingo dira. Eskala urtetik urtera haundi-

tzen juango da, estadu maillako presu-
puesto orokorren legiak ezarritakuari ja-
rraittuta.

- Bihargiñaren babesarekin lotutakuetan egongo diran kanbixuak bereziki inportantia izango dira eta bihargiñak oñ arte aurreikusten ez ziran kasu askotan prestaziñua jasotzeko moduan izango dira aurreantzia, adibidez arriskuzko haurdunaldixetan, lan istripuetan edo biharrarekin lotutako gaixotasunak agertuz gero

- Famelixa-buruak bihargiñarendako Mutua aukeratzeko asmuia izanez gero, urtia hasi eta 30 egunetako epia eukiko dau horren barri emoteko, bestela koberturia zuzenian Seguridade Sozialaren esku geratuko da.

Kasuan kasuko berezittasunak

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko Jesus M^a Ordoñezek eta Somos Asesores gestoriako Amaia Herasek eta Iria Morenok jardun eben dekretuarekin batera etorriko diran aldaketa nagusixen gaiñeko informaziñua emoten eta hitzaldixa entzuteru jaundakuen galderak erantzuten. Interbenziñuetan planteau zittuen zalantza gehixenak bihargiñari emon biharreko jaixen ingurukuak eta ordaindu biharrekuaren gaiñekuak izan ziran. Izan



biharra da, bakoxtaren situa-
ziñua berezixa izaten dalako.
Batzuk orduka jarduten dabe,
beste batzuk interina modu-
ra... bajak eta bestelakuak
kalkulatzeko zailtasun haun-
dixak dake gehixenak eta, ho-
rregaittik, gure moduko profes-
ionalengana jo bihar izaten
dabe dana egunian eta
arauak esaten dabena beteta

euki ahal izateko, horrek da-
karren gastuarekin".

Edozelan be, kontratuekin
zein bestelako betebiharre-
kuekin lotutakuekin laguntasu-
na bihar dabena Bittor Saras-
ketan daguan Lanbideren bu-
legora juateko aukeria dakala
argi laga nahi izan eben jardun-
aldixen antolatzailliak, "za-
lantzak eta bestelakuak argi-



Astehenekoa saian baten bat kontratatzen dabeneko informaziñua emon eben batez be.

***"Oin arte etxe
barruko bihargiñak
erregimen
berezixari jarraitu
detse; baiña,
azaruan 14an
onartutako
dekretuari esker,
erregimen
generalaren
parte izatera
pasauko dira"***

tzeko zerbitzua eskintzeko
gertu egongo dira eta".

M^a Jose Telleria ziñegotzixa-
ren eta Pilar Pujana teknikari-
xaren ardurapian daguan Pro-
moxiño Ekonomikorako depar-
tamentuan be laguntasuna es-
kinduko detse hala bihar dabe-
neri. Bulegua Portalea barruan,
4. pisuan dake.

be, etxe barruko bihargiñ as-
koren kontratu eta bestela-
kuekin arduratzen diran ges-
torixako ordezkariak azaldu-
takuari jarraituta, "kotizaziño
eta beste kontuak egunian
eruatia zoratzeko modoko

vintage
altzariak
opariak

1964

Altzari eta opari bereziak eta merkeak!!!

PROIEKTUAK
ERREFORMAK
DEKORAZIOA

Gabonetarako %10eko deskontua erakusketan

| 1964 | san juan 16 behea | eibar | 943 207342 | 656756485 | 1964.virginia@gmail.com

TEEN-
AJEA



Gabonetako 7. Artisau Azokak gaur arratsaldean irekiko ditu ateak. **Urtarrilaren 5-era** arte egongo da zabalik eta artisauak euren produktuak eskaintzeaz gain, tailer-
rrak ere egingo dira. **Artisauen aurtean Jone Perales** egongo da. **25 urteko eibartarrak** bere eskuekin egindako larruzko bitxiak izango ditu han salgai.

JONE PERALES, artisaua:

“Diademak, brotxeak... eramango ditut azokara”

- Zelan hasi zinen bitxiak eta abar egiten?

Txikitatik gustatu izan zaidan gauza bat da eta horrela hasi nintzen. Beti egin izan ditut horrelako gauzak, niretzat gehien bat. Gauzak probatzen joan naiz, material ezberdinak eta abar, baina dena hobby moduan.

- Eta nola eman duzu pausoa zaletasun bat izatetik zure produktuak saltzera pasatzeko?

Eibart elkartearen hainbat ezaugun neukan eta behin galdetzearen eman zidan. Kasualitatez Euskal Jaietan postu baterako tokia zegoen ez zutelako inor topatzen, ea joan nahi nuen galdetu zidaten eta baietz erantzun nien.

- Nolako izaten da lan horiek egiteko prozesua?

Lehenengo pentsatu behar duzu zer den daukazuna. Bolak beti izan ditut, txikitatik, oparitu didatelako edo koilarretakoak (askotan koilarrak bilatu izan ditut, hustu eta gauzak egiteko). Oinarria larrua denez, toki batetik bestera galdezka ibili nintzen eta lagun batzuk lortu didate larrua (emandakoa ere badaukat).

- Zelako lanak eramango dituzu aurten azokara?

Diademak, brotxeak, larruzko pultserak, giltzatakoak, koilarrak... denetarik pixka bat.

- Beste lekuren baten eskura daitezke zure lanak?

Normalean ez. Norbaitek zerbait nahi izanez gero, beti lagatzen ditut txarteltxoak; horrela, norbaitek enkarguren bat edo egitea nahi badu, aukera dauka. Lagunentzat bai egin ditudala gauzak: ezkontza baterako, arropa batekin eramateko...

- Iaz ere egon zinen azokan. Nolako izan zen esperientzia?

Oso ona. Zer zen probatzeko balio izan zidan. Lehen urtea zenez, beste batekin elkarbanatu nuen mahaia. Orduan, trankilago negoen tokia txikiagoa zelako, erakusteko produktu gutxiago nituelako... Baina aurten toki bikoi-tza daukat, niretzat bakarrik.

- Zelako giroa bizi da azokan?


Ona. Alboko postuan dagoena ez baduzu ezagutzen ere, berekin berba egiten duzu, bakoitzak bere istorioa esplikatzeko du... Euretariko asko azoka askotan egon dira eta niretzat lagungarria da. Ideiak elkarbanatzen dituzu, inspiratu egin zaitezke bapatean... edozer gauza.

ABEGI FAMILIEN BILA!!

689 586 277

CHERNOBIEN LAGUNAK G.K.E.-ak
2012ko udan haurrak hartu nahi dituzten familien bila dabil. **Animatu zaitez!!**

INFORMAZIO GEHIAGO:
chernobilenlagunak@yahoo.com
www.chernobilenlagunak.com



ARGITU
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa
Tel. 675 706 807

ERRETZEARI LAGATZEKO ikastaroa
urtarrilaren 28an eta 29an

emailga paregabeekin




GABONETARAKO erosketa GIDA

TRINMER Ego Gain, z/g
943 12 73 50


Telebista digitalaren
INSTALATZAILE
OFIZIALA



OFERTAK
ETA INFORMAZIOA:
www.trinmer.com



- Erlojuak
- Zilarra
- Artisautza
- Bitxikeriak



BEITU J. Etxeberria, 13
943 70 02 30



- Opariak egiteko aukerarik onena
zorionak!

PITXIAK Zuloagatarren, 9
943 20 17 40



- Laser depilazioa
- Masajeak / Osteopatia
- Luzarorako manikura
- Gel azazkalak
- Oparirako bonoak eta gorputz tratamenduak
- Mikropigmentazioa


CAPI Bidebarrieta, 5
943 20 15 47



- Landareak
- Zentru naturalak eta lehorrak
- Etxerako zerbitzua


IZADI

San Juan, 1
943 20 33 29



- Emakume eta gizon moda
- Lentzeria eta osagarriak


VALENCIAGA Zuloagatarren, 1
943 20 22 33



FARMALUR

T. Etxebarria, 18
943 70 29 23

- Jostailuak: 0-13 urtera arte
- Kosmetiko kaxak, bakoitzaren gusto eta prezioaren arabera



- Ume eta gazte moda (0 urtetik 16ra arte)



ON LINE
www.ikusimakusi.com

IKUSIMAKUSI Calbeton, 8
943 20 08 68

- Fotodepilazioa
- Goi Kosmetika Naturala
- Aurpegi eta Gorputz tratamenduak
- Manikura / Pedikura
- Oparitzeko Bonoak
- SPA Masajeak
- "Jorge de la Garza" Makillajea: kurtso pertsonalizatuak
- Dietetika eta Nutrizioa

Urkizu, 11 - solairuartea
943 53 05 25
www.estetikakerala.es

KERALA



Zorionak!


GRATZINA

Zuloagatarren, 2
943 20 09 91

JAUREGUI

San Agustin, 4
943 20 16 47

- Menajea
- Beira
- Opariak




DKORA

Isasi, 18
943 53 12 59

- Altzariak
- Menajea
- Bainurako osagarriak
- Ehungintza
- Argiztapena
- Opari pertsonalak
- Osagarriak


100 m²ko
AUTOZERBITZUA



GUBY neskak

- Gusto eta adin guztietako moda

J. Etxebarria, 2 943 20 15 51



EBK EIBARKO BIZIKLETA

**Karmen, 9
943 53 02 12**

- CUBE
- PINARELLO
- MMR
- CONOR

- *Bizikletarako
behar duzun
guztia*



zorionak!

BAGLIETTO

**Errebal, 21
943 20 19 22
943 20 22 31**



- *Opariak* - *Etxerako osagarriak* - *Pinturak*



**Bidebarrieta, 26
943 82 06 37**

**Goienkale, 7
DURANGO**

**CALZADOS PABLO
VI Centenario, 19
ERMUA**

GOIEN

- *Guztiondako oinetakoak*



LAUMAR

**Bidebarrieta, 1
943 20 16 26**

- *Landareak*
- *Lora sortak*
- *Zentro naturalak
eta artifizialak*
- *Teleflora zerbitzua*



LIDE

**T. Etxebarria, 10
943 20 21 71**

- *Gazte Moda*



- *Gizon eta
emakumeendako
lentzeria eta
kortseteria*
- *Taila bereziak*

DITARE

**Urkizu, 7
943 12 73 21**

**Ego-Gain, 2
943 70 14 08**

- *Eguzki moda
2012*
- *Eski maskarak*
- *Audifono
digitalak*
- *Gabonetako
promozioak*

ZENTRAL OPTIKA

zorionak!





GROW SHOP 13-14


Urki, 21 - beheha
(Txaltxa-Zelai, 2 A)
943 53 19 09

- Barruko eta kanpoko laborantza eta parafernalia guztia
- Opariak

*Zorionak!
eta urte berri on!*

EKLIPSE

Zuloagatarren, 7
943 53 02 48




- Gazte moda: 40 tallatik 60ra arte

SELENE

J. Etxeberria, 6
943 20 09 07

- Moda
- Oparietarako osagarriak



KATETXO

J. Etxeberria, 5
943 25 75 36

- Kafea, tea eta txokolata
- Bonboiak eta turroiak
- Umeendako txokolatezko opariak
- Gabonetako otarrak

SAN ANDRES GOZOTEGIA

Bidebarrieta 28 943 20 79 73



- Pastelak, "txikiak", pastak, rellenoak, bonboiak, tartak...
- Enkarguak etxera

KINKILA

Bidebarrieta, 16
943 70 23 29

- Pantyak
- Galtzerdiak
- Mertzeria



GABON

zoriontsuak!!!

Arrate Kultur Elkartearen, Nabarralderen eta Einabarren ekimenez 'Independentzia ekonomikoaz' izeneko hitzaldia eskainiko du Oskar Arantzabal ekonomilari eibartarrak abenduaren 21ean 19.30etan Kultur.

OSKAR ARANTZABAL,
ekonomilaria:

"Hobeto biziko ginateke Euskal Herri independentietean"

- Euskal Estatu bat bideragarria ez denaren argudioa zabaldu izan da Euskal Herriaren independentzia ukatzen dutenen ahoetatik. Zer deritzozu?

Ustezko bideragarritasun eza hori tamainari lotu izan zaio, txiki-gia dela argudiatuz; baina datuetan baino aurriritzietan oinarritu da. Europako Batasunean badira gaur egun 6 estatu gu baino txikiagoak eta munduan 60 inguru. Jende gutxi daki badela Nazio Batuen Erakundearen Tuvalu deritzon estatu bat 18.000 biztanle besterik ez duena (Eibar baino txikiagoa) eta, bistan denez, bideragarria da. Inor gutxi jartzen du zalantzan arrazoi ekonomikoak, irabazi eta kostuen arteko analisi hutsa (berriki Madrilgo unibertsitate batek baieztatu "matematikoa" azaldu du), beraz, bestelako kontuak dira aitzaki. Bideragarri baino errentagarri esango nuke: hobeto biziko ginateke.

- Datuen arabera Euskal Herriaren krisiak ez du Espainian bezain eragin txarra izan. Zergatik?

Gure eredu ekonomia erreare-lari lotuago dagoelako, industriaren pisua %25ekoa da, Espainiakoa bikoizten; eta Espainian, alderantziz, eraikuntza eta turismoan burbuilak eragiten dituztenak daude. Finantzak ere osuntsuagoak ditugu, bai publikoak eta baita pribatuak. Eta, luze-rako doanez, aurrera begira, jendea prestatuagoa dugu, ekonomia berritzaileagoa eta nazioartekotuagoa. Nolabait esateko, gure eredu ekonomikoa "alemaniarra" da.

- Europa mailan non kokatzen da Euskal Herriko ekonomia?

Abiadura ezberdinetaz berba egiten ari denez, lehenengoan edo behintzat batezbestekoan. Datu makroekonomikoei begiratu: bizi-maila altua daukagu, neurriko langabezia eta hazkunde tasak, defizit kontrolatua, gastu sozialean hobetu dezakegu... Hain modan dauden rating agentzien kalifikazioak subjektu sozioekonomiko ezberdindutaz gaituzte. Ez gara AAA, baina bai AA+ (Espainia baino bi maila



la gorago). Nolanahi ere, atzekoei begiratzea baino, hobe genuke aurretik ditugunengandik ikastea.

- Beste eredu ekonomiko bat bultzatu litzatekeela pentsatzen duzu Euskal Herriak independentzia lortu ezker?

Estatu berriek freskura ekarri beharko liokete munduari. Estatu txikien abantailen artean arrisku handirik gabeko esperimentazio "laborategi" izatearena dago, esate baterako Danimarkan lan harreman "malgusegurua", Austrian langabezi-funtsak... garatu dituzte. Ez da harrizkoa Ipar Euskal Herriko abertzaleek, adibidez, harreman estua izatea ekologistekin. Hori bai, ahaztu gabe, Europa mendebalde honetako jendartearen erdia inguru eskubikoa edo kontserbadorea dela eta proiektu guztiek merezi dutela errespetu bera.

- Elkarrizketa batean diozu estatuen eredu aldatzen ari dela eta paradigma berria estatu txikiak protagonismoa izango dutela. Zergatik?

Hogeigarren mendearen hasieran munduan 50 estatu zeuden, gaur egun ia 200 eta beste asko bidean, adibidez Palestina, Sahara eta Eskozia. Lehen barne merkatuen eta estatuaren defentsa mugak berdinak ziren, inperio handien itzal, orain dena da ekonomikoki irekiagoa eta, beraz, mundu demokratikoagoa. Adierazle ekonomiko gehienei erreparatu (Barne Produktu Gordina, Giza Garapenaren Indizea, aberastasunaren banaketa, langabezi tasak, gardentasuna, elkartasuna, kaudimena, berrikuntza, lehiakortasuna, azterna ekologikoa edota berriki modan jarritako Barne Zoriontasun Gordinean) estatu txikiak agertzen zaizkigu ranking horietako lehen postuetan. Eta ez dira harrizkoak hurbiltasun horrek dakarren arrakastaren zergati batzuk: barne kohesioa, irekitze tasa, hazkunde handiagoa, espezializazio lehiakorra, malgutasuna aldaketa azkarrei, defentsa gastu txikiagoa.

Elkarrizketa osoa: www.etakitto.com

ITURRI
ARDOAK
ETXEREN ERREFORMAK
EIBARREKO MERKATU PLAZA - 48100
TEL. 943 12 13 17

MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

Egigurentarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

Eibar-Sestao River bihar 16.00etan Ipuruan


AZKEN JARDUNALDIAN OSASUNA B-RI 1-0 IRABAZI ONDOREN, JAVIER MANDIOLAREN MUTILEK Sestao hartuko dute bihar arratsaldean Ipuruan. Eibartarrendarik lau puntura daude bizkaitarrak sailkapenean, azken jardunaldian Palentzian bana berdindu eta gero. Ez dira, beraz, aurkari errazak izango; baina, armaginek berriro irabazita, ondo baino hobeto eutsiko liokete gaur egun duten lau onenen arteko postuari.

Gaizka Garitanok zuzentzen duen bigarren taldeak, bestalde, Elgoibarko Mintxe-

tan izango du hitzordua: derbia domekan jokatuko da, 17.00etan hasita.

Abonatu kanpaina


Herenegun aurkeztu zuen Alex Aranzabal presidenteak urte berriari begirako harpidedun kanpaina. Gaur egun Eibar KE-ak 2.800 abonatu ditu eta, harpidedunen bazarrean erabakitakoari jarraituz, gaur egungo kuotei eutsi nahi diete; hala ere, langabetuentzako beherapenak egiteko asmoa dute.



Arroyo Eibarko aurrelaria Mirandés-en aurka jokatutako partiduan. Burgosekoek galdu barik jarraitzen dute.

Salgado eta Losada Nafarroako squash txapelketan

EIBARKO KLUB DEPORTIBOKO ORDEZKARI BIEK MAILA ONEAN JARDUN DUTE NAFARROAKO Erreinuaren V. txapelketan, Salgado gainera 16 onenen artean sailkatuz. Espainiako Squash Federazioak antolatzen dituen artean maila altuen duen torneo da eta, oraingoan ere, 120tik gora kirolari izan dira parte hartzen. Sergio Salgadok bikain lehiatu zuen eta, azkenean, torneo irabaziko zuen Alex Garbiren aurrean eman zuen amore. Jon Losada aurreko faseko neurketa bat irabazi



ondoren kaleratu zuten. Euskal ranking-eko zortzi onenak bilduko dituen Master 2011n izango du Salgadok hurrengo hitzordua.

Binakako txapelketa nagusiko norgehiagoka Astelenan

APIRILERA ARTE IRAUNGO DUEN PILOTA TXAPELKETAREN LEHENENGO JARDUNALDIA JOKATUKO DA asteburuan eta Eibarko katedralak horko neurketa bat jasoko du: Bengoetxea VI.a eta Apraiz vs Arretxe II.a eta Begino. Jaialdiko partidu nagusia hori izango bada ere, aurretik Retegi Bi eta Merino I.a Idoate eta Zabal-



baletaren aurka izango dira eta, amaierakoan, Olazabal-Larrinaga eta Jaunarena-Arruti bikoteen arteko lehia ikusi ahal izango da.

Txapelketaren aurkezpeneko irudia.

Muguruza judokak urrezkoa jaso du hiru mailatan


LOGROÑOKO ADARRAGA FRONTOIKO INSTALAZIOETAN JOKATUTAKO ERRIOXAKO JUDO TXAPELKETETAN izan ziren Kalamuako hainbat ordezkari emaitza bikainak eskuratu zituzten.

Nekane Muguruzak, esaterako, urrezko domina eskuratu zuen infantiletan, kadeteetan eta seniorretan, alajaina! Adrian Riañok urrezkoa lortu zuen kadeteetan eta brontzekoa seniorretan eta, beste batzuren artean, urrezkoaz jabetu zen kadeteetan Eneko Lores. Pedro Guerrak eta Manu Agirrek epaile lanetan jardun zuten.



Urtarrilerako eski irteera zehaztuta

KLUB DEPORTIBOKO ESKI BATZORDEAK URTARRILEKO BIGARREN ASTEBURURAKO HITZORDUA LOTU DU: 14 eta 15eko asteburu horretan irteera egingo du Somport eta Astunera, LHko 5. eta 6. mailakoentzat eta DBHko 1. eta 2. mailakoentzat, helduentzat (18 urtetik gorakoentzat) antolatutakoarekin batera. Helduek Canfranc-eko Villa Anayet hotelean hartuko dute ostatu (60 euro, pentsio erdia barne) eta eskolakoek Villanuako Tritón aterpetxean (73 euro, ostatua, forfaita eta alokairua barne). Izen-ematea Deporrek bulegoetan egin daiteke, martitzen eta eguenetan (19.30/20.30) eta batzordekoek "asko eskertuko lukete" jendeak Gabon aurretik izena ematea.



Eibar Eskubaloia klub berriak bere talde guztiak "plazaratuko" ditu asteburu honetan Untzagan. "Klub soziala" osatzeko asmoa dute taldeko agintariek eta, horretarako, bazkide egiteko mahaia jarriko dituzte gaur eta bihar jendeak klub berriarekin bat egin dezan. Gaur arratsaldean zabalduko dute txosna eta bihar ere egun osoan izango da, osatutako egitarau betearekin batera (ordutegia agendan ikusi dezakezue, 28. orrialdean).

FERMIN LAZKANO, Eibar Eskubaloia presidentea:

"Bazkideak behar ditugu ahal den klub sozialena egiteko"

- Zer bilatzen duzue astebururako antolatu dituzuen ekimenekin?

Batez ere, gure izaerarekin bat eginez, eskubaloia moduko kirol aktibitatea plazartzeara. Horretarako, aproposa ikusi dugu Untzagan bertan klub berria jendeari gerturatzeara, gazteak jokatzeko aukera eskaintzea. Klub soziala da gurea, finantzazio bide berriak hautatu dituen: instituzioen laguntzak eta jendearen aportazioa izango ditu oinarri. Hori dela-eta, mahaia ere jarriko ditugu bazkideak egiteko.

- Historia handia egin duen Arrate taldea desagertu ondoren sortu zen zuena. Zela-ko bilakaera bizi izan duzue prozesu honetan?

Gure kluba ez da ezerezetik sortu. Aurretik zeuden fitxak eta klub berria osatu duten gurasoen taldeak ere jakintza bat aportatu dute. Horrela, hutsetik hasi beharrean, klub normal bat osatzearen ibilbidea asko bizkortu da. Arazo handirik ez dugu izan denboraldia normaltasunez hasteko, behe-beheko mailetatik hasi behar izan bagara ere lehiatzen. Zuzendaritzakoek astean behin edo birritan batzen gara: nahikoa da.

- Espiritua, dena dela, JD Arratek zuenaren desberdina da, ezta?

Profesionalizazioa baztertu dugu eta, hasieratik, finantzaziorako ez dugu enpresen bila jo; bazkideak izan nahi ditugu, boto eskubidearekin. Hori

bai, Arratek harrobiarekin egindako lanarekin jarraitu nahi dugu eta gaur egun ditugun 220 gazte eskubaloia praktikatzeko ez dugu galtzen laga behar.

- Zer moduzko harremana duzue instituzio eta erakundeekin? Herritarrek ondo hartu zaituzte?

Ahozko hitzarmena dugu, bai Udalarekin, bai Diputazioarekin eta baita Eusko Jaurlaritzarekin ere. Egunotako batean sinatuko ditugu eta aurrekontuetan ere jasota daude partida horiek. Jarrera ona izan dute eta, eskutatuko guztia eman ez badigute ere, pozik gaude. Herritarrei dagokionez, zerbitzu publikoa eskaintzen dugunez, gurasoen eta zaleen bazkideak ziurtatu behar dugu: Eibarrek badi-eta halako lotura bat eskubaloiarekin, kirol honen inguruan masa soziala biltzen duena.

- Zeintzuk dira gaur egin dituzuen arazo larrienak aurrera egiteko?

Bazkideak indartu behar da, jakina. Emakumezkoen eskubaloia alde lan egin behar dugu, dirulaguntzak-eta parekatuz. Eta talde

teknikoaren maila, altua bada ere, sendotu eta egonkortzeko premian gaude. Erdiprofesionalizazioaren bidea da erabili nahi dugun kontzeptua gure klubean: ordu batzuk kirolari eskainita ere, herrian erroto eta beste lan bat izango duten jokalariek aurreikusten dugu.

- Kirol arloan, zenbat urte behar dira taldeak euren mailan egonkortu arte?



Hiru-lau bat beharrezkoak dira, behetik hasi baikara. Kirol arloan ia partidu guztiak irabazi ditugu eta, batez ere, senior mailako taldeak aurkariak egurtu ditu. Inguruko herrietako gazte batzuk galduta ere, Eibarkoak ahalegin berezia egin dute eta talde oso indartsua da gurea. Beharrezkoa da lehen ekipoa erreferentea izatea gazteentzat eta horri eutsi behar diogu. Emakumezkoen taldeak, ordea, ahul daude eta horiek indartu behar ditugu.

- Etorkizun laburrerako erronka nagusienak zelan laburbilduko zenituzke?

Urte osoko zikloa behar dugu ikasteko benetan. Bazkideei dagokionez, 300 lortzeko itxaropena dugu. Egonkortasuna bilatu behar dugu kirol arloko talde teknikoan eta baita zuzendaritzan ere. Eta eskubaloian ditugun espektatibak ea betetzen doazen, emakumezkoen arloan sakonduz. Laguntza maila eta antolaketa ondo joatearekin bat, kirol mailari ere erreparatu behar diogu.

Bestalde, urtarrilaren 7an eta 8an, Miguel Diegoren omenezko torneoa jokatuko da Ipuruan, Trapagaran, Zarautz, Arrasate eta Eibar Eskubaloia artean. Aukera polita izango da eskubaloia ona ikusteko.



Katearen Eguna bihar eguerdian Portalean

AZKEN URTEOTAKO BIDEARI JARRAITUZ, KATEAREN EGUNAREN EDIZIO berria egingo dute bihar Portaleko areto nagusian. Ekitaldia 12.00etan hasiko da, honako egitarauari jarraituta: hasteko, Klub Deportiboko mutilen taldea aurkeztuko da; jarraian, kontratu sinaketa egingo da Debabarrenarekin; ondoren, Euskal Bizikleta KE-ren lizen-

tziarekin aterako den nesken elite UCI profesionalen taldea aurkeztuko da, Kirolgi patrozinatzailearekin sinatu aurretik. Ohikoa denez, Euskal Herriko Itzulia eta Donostiako Klasikoaren laburpenen bideoa ikusi ahal izango dira. Denboraldi berriari begira, urteko proiektua aurkeztuko da eta, amaitzeko, luntx-a eskainiko da Eibarko Klub Deportiboan.



GOYA

Fisioterapia



ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.
ARRAQUETA, 20
T.F. 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

FISIOTERAPIA ZENTRUA



FISIOTERAPIA
ENEKO MAILAGARAI OSTEOPATIA
901 kolegiatu zbia. NEUROLOGIA
NEURO-ESTIMULAZIOA
S. Agustin, 2-4 - M. lokala Tel. 622 14 58 58

Okulistak



JOSE ALBERDI
ARRATSALDEZ
San Juan 11 - solainurtea
943 20 19 82



Clinica Oftalmologica RECALDE
Oftalmologi Klinika
Plaza Barria, 2 - 2º
Tfnos: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak



ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia
T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93



BIDEBARRIETA, 48 EIBAR
943 203050
ERDIKO KALE 54 ARRASATE
943, 799746
PODOLOGIA Etxe Klinikak
Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



PODOLOGOA
Maidor Lopez Etxebarria
Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88
65 Kolegiatu zbkia.



Iñaki Rivero Zabaleta
Calbeton, 4 - 2. (Untzagako dorrea)
Tel. 943 20 86 41

Psikologoak

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA
--- (Ume eta helduendako) ---
Ana Artamendi eta Beatriz Ortueta
- Afasiak - Dislexiak
- Disfoniak - Hizmoteltasuna
- Dislaliak - Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa
T. Etxebarria 10 - 6. ez. (EIBAR) Tel. 943 20 27 15
Artekalea 30 - 2. B (DURANGO) Tel. 94 681 90 79


UME ETA HELDUENDAKO PSIKOLOGIA KABINETEA
Arrate Garitaonandia
HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO TRATAMENDUAK
Bidebarrieta, 27-B (3. atea) 943 20 22 66
a_garitaonandia@hotmail.com

Psikologia klinika eta Psicoterapia zentroa
Ψ
Oscar Mondragon Lili
Urkizu, 13 - behea
Telf. 943 206823 eta 686 859023

Radiologia

MADINA RADIOLOGIA
- Mamografiak
- Dentsitometriak (osteoporosi ikerketa eta balorazioa)
- Hertz-scanner 3D-etan (inplanteak ezarri aurreko hezur baloraziorako)
TRAUMATOLOGOAK: Azkarate eta González Bosch doktoreak
TRATAMENDUAK hazkuntza faktoreetan aberatsa den plasmarekin
Toribio Etxebarria, 4 - 1. ez. 943-202857

Jose Saramagoren ipuin bat ia berba egin barik antzerkian. Nola? Markeliñe espezialista da horrelakoetan; eta emaitza ikusi nahi izanez gero, hilaren 17an Coliseora hurbiltzea besterik ez dago 17.00etatik aurrera Uharte Ezezaguna ikuster.



JON KEPA ZUMALDE (Markeliñe):

"Badaude berba barik konta daitezkeen gertaerak"

- Uharte ezezagun batera joan nahi duen neska aurkezten du antzezlanak. Nolako abentura biziko du?

Neskarentzat Uharte Ezezaguna bere ametsak, ilusioak eta etorkizuna bilatzeko indar hori aurkituko duen lekua da. Erreginari itsasontzi bat eskatzen dio bertara heltzeko; morroi bat sartzen da itsasontzian polizoi bezala, engainu moduan, erreginak ez duelako nahi beste inork aurkitzea beretzat existitzen ez diren uharteak. Erreginarentzat uharte horiek ez dira existitzen, existitzen direnak ezagunak direlako eta denak bereak direlako.

- Nolako erronka da Jose Saramago bezalako idazle baten liburu bat antzerkira eramatea?

Oso erronka bitxia. Egiten ditugun antzezlanak, normalean, testurik gabekoak dira eta testu literario bat hartzea eta horrekin hitz bariko antzerkia egitea oso bitxia da. Hala ere, Saramagok duen idazkera berezia gure mugimenduetara eraman nahi genuen. Lengoia berria lortu dugu, mugimendu aldetik oso berezia eta ikusleak berehala konturatzeko dira aktoreen mugimenduak ez direla oso naturalak berez; hori Saramagoren idazkerari egindako keinua da. Lanari moldaketa txiki bat egin diogu: Saramagoren lanean mutilak direnak

gurean neskak dira eta alderantziz. Historia, hala ere, oso fidela da: bertako esaldi apurrak zuzenean liburutik hartutakoak dira.

- Ia testu barik, nola moldatzen dira aktoreak lanaren mezua igortzeko?

Lengoia gestuala garatu dugu beti; ez da gurea, baina gure aktoreak horrela hornitu ditugu. Batzuetan topikoetan oinarritzen gara gauzak esateko, baina uste dugu badaudela berba barik konta daitezkeen gertaerak. Orduan, guk gauza praktikoak eta irudi poetikoak erabiltzen ditugu. Aktoreek gorputzarekin egiten duten lana batez ere. Nahi duguna esateko keinuak ahalik eta gehien zehazten saiatzen gara, askotan imintzio batek interpretazio asko izan ditzakeelako.

- Norentzat dago zuzendua antzezlanak?

Gure erronka ikuslea entrete-nitu eta antzezlanetik urtetzekoan ikusitakoan pentsatzen jartzea da. Familiari zuzendutako lana da, ez bakarrik umei: guraso eta umeek nukleoa osatzen dutelako. Istorio horiek nola kontatzen ditugun harritzen dituzte helduak; izan ere, oso postura bisuala delako, eta umorea eta mezua ere dagoelako. Garrantzisua da, baita ere, ume eta helduek informazio hori elkarturkatzen dutelako.



Eibarko Artisten Elkartearen lanak Portalean

GAUR ARRATSALDEAN, 19.00-ETAN INAUGURATUKO DUTE PORTALEKO erakusketa aretoan Eibarko Artisten Elkarteak urtero prestatzen duten taldekako erakusketa. Urtsailaren 8ra arte Portaleko 2. pisuan ikusgai egongo den erakusketa orotariko artelanak ikusteko aukera izango da, den-denak gure herriko 160 bat artista batzen dituen elkarteak 40 bat bazkidek sortutakoak.

Markos Untzeta gaur Coliseoan

MARKOS UNTZETA "MISSISSIPPI" BERE AZKEN LANA EZAGUTZERA EMATEKO KONTZERTUA

eskainiko du gaur 20.30etan Coliseoan hasiko den zuzeneko emanaldian. Eibartarrak aurten eman du argitara gaur aurkeztuko duen hirugarren diskoa, Gaztelupeko Hotsak-en eskutik eta bertan bildutako abestietan gospel, blues, soul, country, folk eta rock and roll estiloei bat egiten dute. Sarrerak 3 euro balio du eta lehiatilan salgai egongo dira, emanaldia hasi baino ordubete aurretik.





Deporreko argazkilariak Portalean

URTEAREN AZKEN AURREKO EGUNEAN, ABENDUAREN 30-EAN ITXIKO DUTE egunotan Portalean ikusgai dagoen Klub Deportiboko Argazki Taldekoren lanak batzen dituen erakusketa. José Luis Martínez, Mikel Orozko, Bakarne Elejalde, Pedro Arriola, José Luis Irigoien, Alberto Luke, Jose Valderrey, José Vila, Eduardo Magunazelaia, Jose Ignacio Aizpurua, Carlos Ramos, Einer Rodríguez, Juan Antonio Palacios, Zigor Astigarraga, Fernando Retolaza, Aitor Sarasketa, Federico Cuenca, Enrique Albistegi, Virginia Arakistain, Vicente Eizagaetxeberria, Jose Ignacio de Castro eta Alex Bergara taldeko kideen argazkiak ohiko ordutegiari jarraituta ikusteko aukera izango du nahi duenak, martitzenetik domekara 18.30etatik 20.30etara.

“Zazpikoloroa”-ren aurkezpen arrakastatsua

PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS GURE ARTEAN IZAN GENITUEN AURREKO ASTEBURUAN, ...eta kitto! Euskara Elkartek antolatuta "Zazpikoloroa" pailazoaren azken ikuskizuna aurkezten. Lau saio eskaini zituzten, zapatuan bi eta domekan beste bi, eta urteroko martxari jarraituta emanaldi guztietarako sarrerak asteburua



baino lehen saldu ziren. Ondo baino hobeto pasatu zuten asteburuan Hezkuntza Esparrura joandako umeek eta haien gurasoek eta, ikuskizunean abestu eta dantzatu ondoren askok pailazoekin argazkia ateratzeko aukera ez zuten galdu nahi izan. Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete joan ziren guztiei, ikuskizunean bertan zein aurretik, sartzeko itxaroten egon ziren bitartean izandako jarrera onarengatik.

Muñoaren liburu-aurkezpena eta erakusketa

ASTELEHENEAN, HILAREN 19-AN 19.00-ETAN ZABALDUKU DUTE TOPALEKUAN

hilaren 23ra arte ikusgai izango den "Ametsen txokoan bizi naiz" izenburuko erakusketak, Mikel Zarrabe, Ibon Muñoa, Aniaiz Ariznabarreta eta Igor Maiora preso eibartarren lanekin. Inaugurazio ekitaldian bertan, gainera, erakusketari izenburua ematen dion Ibon Muñoaren lehenengo liburua aurkeztuko dute. Ateramifiek argitara eman duen

olerki-liburuaren aurkezpenerako Mitxel Sarasketa etorriko da, argitaletxea ordezkatzeko eta, horrez gain, Asier Serranok, Simone Begiristainek eta Jesus Mari Gisasola "Trunboik" ere parte-hartuko dute ekitaldian, hainbat olerki irakurtzen. Nahi duen guztia-erentzat zabalik egongo den ekitaldia amaitu aurretik luntxa eskainiko dute. Erakusketak ohiko ordutegian egongo da zabalik, astegunetan 19.00etatik 21.00etara.



laburrak

GORUNTZ OSPITALEAN

Urtero Gabon sasoiaren egin ohi duten moduan, Frantziako Dax-etik bueltatu berri diren Goruntz abesbatzakoek San Andres egoitzan daudenentzat abestuko dute, bertan daudenak alaitzeko. Domekan, Legarreko Ospitaleko kaperan ospatuko den 11.00etako mezan abestuko dute.

ARATOSTEETARAKO KARTELA

Udalak deialdia egin du 2012 Aratosteetarako kartela aukeratzeko lehiaketarako: kartelean irudikatzen gaia norberaren aukerakoa izango da, baina bertan "Aratosteak 2012 Eibarren" esaldia idatzita egon beharko da eta neurria, berriz, 70x50 zm-takoa izatea eskatzen dute. Kolorea: norberaren aukerakoa. Lanak aurkezteko edo informazio gehiagorako Pegorara jo behar da, urtarrilaren 19ko 14.00ak aurretik.

Helbidea

URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreetako
1. solairua

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA


☎ 943 12 02 00 FAX: 943 12 02 04

- | | |
|---------------------------|--------------------------------------|
| 1 Kardiologia | 10 Barne Medikuntza |
| 2 Zirugia | 11 Radiologia |
| 3 Dermatologia | 12 Urologia |
| 4 Dietetika eta Nutrizioa | 13 Traumatologia |
| 5 Análisi Klinikoak | 14 Koloproktologia |
| 6 Ortodontzia | 15 Erizaintza |
| 7 Otorrinolaringologia | 16 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa |
| 8 Pediatria | 17 Foto-depilazio Unitatea |
| 9 Psikiatria | |

ROSARITO Sarasketa Alberdi

(1964-2011)

47 URTE ZITUELA, 2011KO
ABENDUAREN 12AN HIL ZEN




*Azkenean ere, joan zara gure larrosa.
Beti izan zara, txikiñe, etxeke kapritxosa.
Baina han ez da izan ez bukaera aproposa, itzela baitzen zuk zeneukan esperantza eta bizipoza, eta guk oraindik gurekin behar baitzaituqu panpora.
Beraz, ez inoiz ahaztu: beti maiteko zaituqu, Rosa.*

ZURE BESOETAKO, ADRIANA

Abontzatomasak domekan ospatuko dira

DOMEKA EGUERDIAN, 12.30-AK ALDERA HASI ETA 14.30-AK BITARTEAN ABONTZATOMASAK OSPATUKO dituzte Egiguren-tarreneko plazan, Abontzako Iturrixa Elkarteak antolatutako jaialdian. Urteroko hitzorduari kale egin barik, aurten ere nahi duten guztiek jaiarekin bat egitera gonbidatuta daude. Antolatzailerek ipiniko duten txosnan txistorra goxoa, salda beroa eta bestelakoak jan eta edateko aukerarik ez da faltako eta jaialdia giro-tzeko musika alaia ipiniko dute. Gainera, zerbait hartzen duten guztien artean hainbat produktorekin osatutako otar eder biren zozketa egingo dute jaialdiaren amaieran.



Gabon kontzertuak etzi

USARTZA TXISTULARI TALDEAK ETA CIELITO MUSIKA BANDAK GABONETAKO KONTZERTUA eskainiko dute domekan, 12.30etatik aurrera Coliseoan. Emanaldia gazteentzat erakargarria gertatzeko asmoari jarraituta, egitaraua osatzeko orduan abesti ezagunak, pelikuletako soinu bandetatik hartutako piezak aukeratu dituztela azaldu du Cielito-ko musikariak zuzentzen jardungo duen Iñaki Orbegozok. Jarraian, eta Jose Miguel Laskurainen zuzendaritzapean, txistularien txanda izango da. Usartza Txistulari Taldeak eskainiko dituen kantak "Bi bilantziko", "Atzerriko Eguberria" eta "Gabon Abestiak" izenburukoak dira, hiruak ere Jose Ignazio Ansorenak sortutakoak.



Esther Galarza Topalekuan

EGUNOTAN ARRATE KULTUR ELKARTEAREN ERAKUSKETA aretoan Esther Galarza artistaren zeramika-lanak ikus daitezke. Domekara bitartean martxan egongo den erakusketa gaur arratsaldean 19.00etatik 21.00etara zabalduko dute eta bihar eta etzi, berriz, 12.00etatik 14.00etara eta 19.00-etatik 21.00etara.


Koko-Marruak Museoan ikusgai

HILAREN 15-AZ GEROZTIK ETA URTARRILAREN 27-RA ARTE "Koko-Marruak" erakusketa hartuko du Armagintzaren Museoan (Portalean, 5. pisuan). Koko-dantzarien eta koko-marruen konpartsak 2008an ekin zioten Aratosteetan baserririk baserrirako kalejerei, Kezka Dantza Taldearen eskutik. Aratosteek zuten benetako esanahia berreskuratzeko asmoz sortutako ekimena honezkero finkatuta geratu da gurean eta Museoaren proposamenari erantzunez Kezka taldeak prestatutako erakusketan konpartsetako pertsonaiek jantzen dituzten koko-jantzieta asko bildu dituzte.



Juan San Martin beka Haritz Monrealentzat

2011-KO JUAN SAN MARTIN BEKA HARITZ MONREALEK JASOKO DUELA eman zuten eza-gutzerara UEU eta Udaleko ordezkariak aurreko astean egindako agerraldian. Euskal Herriko Unibertsitatean Euskal Filologian (1992) eta Ingeles Filologian (1995) lizentziatua, Edinburgon Literatura Konparatua eta Orokorrean masterra burutu zuen 1992-93an eta gaur egun mendiko literaturarekin lotutako doktorego tesia egiten dihardu eta, hain zuzen ere, mendi-literaturari lotuta dagoen narratiba biografikoaren azterketa konparatiboarekin eskuratu du 9.000 eurotako dotazioa duen beka.



zinea Coliseoan



"La voz dormida"

Zuzendaria:
Benito Zambrano


16an: 22.30
17an: 19.45, 22.30
18an: 17.00, 20.00
19an: 20.30



"Premonición"

Zuzendaria:
Gilles Bourdos

16an: 22.30
17an: 19.45, 22.30
18an: 20.00
19an: 20.30



"Misión: Imposible"

Zuzendaria:
Brad Bird

16an: 22.30
17an: 19.45, 22.30
18an: 20.00
19an: 20.30



"Vicky el Vikingo"

Zuzendaria:
Christian Ditter

17an: 17.00
18an: 17.00




"Olentzero"

Zuzendaria:
Gorka Vázquez

17an: 17.00
18an: 17.00

laztanak emoten...


Zure senide edo lagunena bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, DANIEL, domekan hamar urte beteko dozuazelako. Etxekuen partez.




Zorionak, MAITENA, zure lehen urtebetetzian. Muxu haundi bat aitatxo eta amatxoren partez.




Zorionak, JUNE, hillaren 10ian bost urte egin zenduazelako. Etxekuen partez.




Zorionak, MALEN, Urizar Arruti, atzo hiru urte bete zenduazelako. Famelixaren partez.




Zorionak, MAIA, zure bigarren urtebetetzian. Etxeko guztien partez.




Zorionak, PEIO, hillaren 9xan zazpi urte bete zenduazelako. Patxo haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, JANIRE López Moreno, hillaren 7xan hiru urte bete zenduazelako. Patxo haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, MARTXEL, gure mutill haundi, 13an lau urte bete zenduazelako. Patxito potolua aitta, ama eta Iraiaren partez.




Zorionak, JULEN, gure etxeko altxorrak domekan hiru urte beteko dittu-eta. Famelixa guztiaren partez.




Zorionak, UR Agote Gorostizaga, hillaren 8xan bi urte egin zenduazelako. Famelixaren partez.




Zorionak, MARKEL, astelehenian zortzi urte beteko dozu-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, ALBA Luque Colmenero, hillaren 12xan urtiak egin zenduazelako. Muxu haundi bat aitta, ama eta nebaren partez.




Zorionak, ARIANE, bixar 11 urte egingo dozuazelako. Guraso, Endika neba, aitxitxa-amama eta Alaitz eta Ugaitz lehengusu-lehengusiñen partez.




Zorionak, ANE Bastida, gaur sei urte egiten dozuazelako. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.




Zorionak, AMAIA, bixar 51 urte beteko dozu-eta. Ondo pasau eta muxu haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, JUNE, hillaren 7xan urte bi egin zenduazelako. Patxo haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, MARA, atzo bi urte egin zenduazelako. Famelixakuen eta, batez be, zure ahizta Luciaren artez.




Zorionak, MARKEL Lazpita Arregi, hillaren 8xan bi urte bete zenduazelako. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.




A ze pare... Zorionak, MADDI eta PATXI: lau eta hiru urte dagoeneko! Segi beti bezaiñ alai eta jator, inguruko guztien pozerako. Patxo mordo-mordua bixontzat!




Zorionak, JULENE eta EÑAUT, zuen 6. eta 4. urtebetetzietan. Patxo bana etxeko guztien partez.




Zorionak, PAULA eta MARTIN, zuen 6. eta 2. urtebetetzietan. Muxu haundi bat osaba eta izekoren partez.




Zorionak, LEIRE Etxebarria Laka, hillaren 11n zazpi urte bete zenduazelako. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, JULEN, hillaren 14an urtetxua egin zendualako. Laztan bat etxekuen partez.



Zorionak, OLATZ, hillaren 11n zortzi urte bete zenduazelako. Etxekuen partez.



Zorionak, ZALOA Gerenabarrena gure etxeko pritzesa, 10ian bost urte haundi egin zenduazelako. Etxekuen eta, batez be, zure neba Danelen partez.

horoskopoa

ARIES

Zubian ederto pasa duzula nabari da, zure umorea guztiz aldatu baita. Gogo handiz ekingo diozu urteko azken txanpari, edozer egiteko prest.

TAURUS

Badaezpada hau, badaezpada bestea: ezin zara beti badaezpada ibili. Erabaki sendoak hartzeko unea iritsi da, badaezpadarik gabe.

GEMINI

Azken asteotan gauzak ez zaizkizu irten espero moduan. Lasai, bolada hori atzean laga eta dena bere onera bueltatuko da-eta. Ez etsi eta animo!

CANCER

Eskerrak inor ez den konturatu; bestela, demaseko istilua sortuko litzateke. Argiagi ibili, horrelakoak ezin dituzu-eta berriz errepikatu.

LEO

Kafe gehiegi hartuz gero, oso urduri jarriko zara eta ea nork aguantatzen zaituen horrela. Deskafeinatua hartzen baduzu, mesedea denontzat.

VIRGO

Beharrezko atsedena hartuta, gabonak prestatzeari ekingo diozu egunotan. Izan ere, lan handia izango duzu urteko azken egun hauetan.

LIBRA

Badator negua! Udazken epelaren ostean, iritsi da benetan hotza pasatzeko momentua. Ea nola moldatzen zaren beroa lortzeko.

SCORPIUS

Momentu ederrak pasako dituzu maite dituzun pertsonekin datozen egunotan. Azken aldia faltan botatako gauzak gogoratuko dituzue.

SAGITTARIUS

Zeinen bitxia: eguraldi hotza iritsi eta zuri korrika egiteko gogoa datorkizu. Tira, toki estalietan ere kirola egin dezakezu, ez pentsa.

CAPRICORNIUS

Itasi, gauza asko hasten dituzu; baina amaitu, oso gutxi egia esateko. Zergatik ez dituzu gauzak banaka egiten? Hobeto joango litzazuke!

AQUARIUS

Horrela dela ematen badu ere, aurrean izango dituzun gauza biak ez dira berdinak izango. Ea asmatzen duzun non den desberdintasuna.

PISCIS

Maitasun kontuek ez dizute lorik egiten lagako. Pertsona hori buruan izango duzu momentu oro. Krudela da Cupido, ezta? Irudipen hori duzu.

Barixakua 16

EIBART

18.00.- Eibart Artisautza Azokaren inaugurazioa, Karmenxu Arrizabalagaren aktuzioarekin. Eibarko Bizikleta Plazan.

EIBAR ESKUBALOIA

19.00.- Eibar Eskubaloiairen txosna zabaltzea. Edariak eta txorizo pintxoak. Bazkide egiteko mahaiak. Untzagan.

HITZALDIA

19.30.- "Luces y sombras de la industrialización vasca (1880-1980)", Javier Iza-Goñolaren eskutik. Portalean.

KONTZERTUA

20.30.- Markos Untzetaren kontzertua, "Mississippi" diskoa aurkezten. Coliseoan.

Zapatua 17

EIBAR ESKUBALOIA

09.30.- Multirolak-eko 6. mailakoen partidua. Txosna zabaltzea: edariak, txorizo pintxoak eta salda.
12.45.- Eibar Eskubaloia-ko kadete mutilen arteko partidua.
13.20.- Eibar Eskubaloia-ko jubenilen arteko partidua.
13.45.- Eibar Eskubaloia-ko infantil mutilen arteko partidua.
14.15.- Taldekako argazki ofizialak.
14.40.- Eibar Eskubaloia-ko nesken arteko partidua.
17.00.- Eskubaloiarekin lotutako lehiaketak (15 urtera arte). Hummel etxeko produktuen zozketa.
19.30.- DJ Arno.
21.00.- Zozketak: otarrerako rifena eta bazkide egin direnen artean Orbea bizikleta bat.

IGERIKETA

15.15.- Eibarko XII. Igeriketa Gabon Kopa. Ipurua kiroldegian.

ANTZERKIA

17.00.- "Uharte ezezaguna", Markeliñe antzerki taldearen eskutik. Sarrera: 5 euro. Coliseoan.

OLENTZERO

18.00.- Olentzero El Corte Inglés-eko fatxadatik jaitsiko da, bertan opariak erosteko.

Domeka 18

1946-KOEN BAZKARIA

12.00.- Meza San Andres elizan. Meza ostean talde-argazkia egingo dute eliza pareko plazan.
14.30.- Bazkaria Iruki sagardotegian.

ABONTZATOMASAK

12.00.- Abontzatomasak: txistorra, jolasak... Abontzako Iturrirra Elkartearen eskutik. Egigurentarreneko parkean.

GABON KONTZERTUA

12.30.- Usartza Txistulari Taldearen eta Cielito Musika Bandaren Gabonetako kontzertua. Zuzendariak: Jose Miguel Laskurain (Usartza) eta Iñaki Orbegozo (Cielito). Egitaraua: "Marcha del Coronel Bogey" ("El puente sobre el río Kwai"), "Aladdin" (aukeraketa), "Indiana Jones" (aukeraketa), "Piratas del Caribe" (suite sinfonikoa) eta "Los Increíbles" (aukeraketa). Jose Ignazio Ansorenaren "Bi bilantziko", "Atzerriko eguberria" eta "Gabon abestiak". Coliseoan.

Astelehena 19

INAUGURAZIOA ETA LIBURU AURKEZPENA

19.00.- "Ametsen txokoan bizi naiz", Eibarko presoan lanen erakusketaren inaugurazioa eta Ibon Muñoaren liburu aurkezpena, Mitxel Sarasketa, Asier Serrano, Simone Begiristain eta Jesus M^o Gisasola "Trunboi"-ren parte-hartzearekin. Topalekuan.

erakusketak

– Abenduaren 19tik 23ra

"AMETSEN TXOKOAN BIZI NAIZ". Mikel Zarrabe, Ibon Muñoa, Aniaiz Ariznabarreta eta Igor Maiora presoan lanen erakusketa. Topalekuan.

– Abenduaren 30era arte

KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKI TALDEAren erakusketa. Portalean.

– Abenduaren 31ra arte

PEDRO ARRIOLAren "Rusia" argazki erakusketa. Portalea tabernan.

JOSE LUIS IRIGOIENen argazki-erakusketa. El Ambigú tabernan.

– Urtarrilaren 8ra arte

EIBARKO ARTISTEN ELKARTEAren erakusketa. Portalean.

– Urtarrilaren 27ra arte

"KOKO-MARRUAK". Armagintzaren Museoa.

Martitzena 20

IKASTEN

10.00.- "Erromaniko arkitekturan ikurren interpretazioa", Urko Barros-en eskutik. Armeria Eskolan.

EIBART

18.00.- Birziklaiaren inguruko tailerra umeentzat, Eibart Artisautza Azokan, Eibarko Bizikleta Plazan.

HITZALDIA

19.30.- "Esperientzia historikoak eta balorazio kritikoak", Pako Garmendiaren eskutik. Portalean.

Eguaztena 21

IKASTEN


11.00.- Kafe-tertua: Gabonetako gastuen analisia. Untzaga jubilatutxetan.

HITZALDIA

19.30.- "Independentzia ekonomikoak", Oskar Arantzabalen eskutik. Kultun.

GABONETAKO KONTZERTUA

20.15.- Juan Bautista Gisasola Musika Eskolakoaren kontzertua. San Andres elizan.



HILDAKOAK

- Oliva González Cos. 89 urte. 2011-XI-29.
- Pablo Zubiarremertería Irazabal. 91 urte. 2011-XII-2.
- Pedro López Aurtentxe. 83 urte. 2011-XII-3.
- Angelita Alonso Goikoetxea. 86 urte. 2011-XII-3.
- Angel Conde Lorenzo. 64 urte. 2011-XII-4.
- M^o Cruz Ulibarri Legarra. 87 urte. 2011-XII-4.
- Fernando Zubizarreta Txurruka. 81 urte. 2011-XII-5.
- Rafael Otadui Castillo. 68 urte. 2011-XII-5.
- Carmen Berasaluze Areitourtena. 82 urte. 2011-XII-6.
- Elias Aranbarri Alberdi. 80 urte. 2011-XII-8.
- Iñaki Zaitegi Acha. 55 urte. 2011-XII-8.
- Jose González Carrera. 77 urte. 2011-XII-11.
- Pakita Aranbarri Ostolaza. 75 urte. 2011-XII-11.
- Rosarito Sarasketa Alberdi. 47 urte. 2011-XII-12.

JAIOTAKOAK

- Unai Martín Ferreira. 2011-XI-24.
- Oihan Hernández Menor. 2011-XI-25.
- Lorea Cuervo Peláez. 2011-XI-28.
- Irati Lizundia Zabalegi. 2011-XII-1.
- Dani Roigé Casuso. 2011-XII-1.
- Lucia Parada Pérez. 2011-XII-2.
- Jare Arzuaga Ibarretxe. 2011-XII-2.
- Karam El Bakkali El Hassani. 2011-XII-4.
- Olatz Muñoz Larreategi. 2011-XII-5.
- Noa Marín Gómez. 2011-XII-5.
- Iban Argarate Guerra. 2011-XII-5.
- Jon San Julian Blanco. 2011-XII-6.
- Elene Astigarraga Urkiola. 2011-XII-8.

lehiaketak

– Toribio Etxebarria Sariak.

Gaia: Enpresa ideiak eta proiektuak. Informazioa eta lanak aurkeztea: 2012ko urtarrilaren 7ra arte, www.bicerrilan.com helbidean.

farmaziak

16, barixakua

EGUNEZ Las Heras (Sostoatarren, 10)
GAUEZ Las Heras (Sostoatarren, 10)

17, zapatua

EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)
GAUEZ Elorza (J. Gisasola, 18)

18, domeka

EGUNEZ Larramendi (Calbetón, 19)
GAUEZ Lekunberri (Isasi, 31)

19, astelehena

EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
GAUEZ Lekunberri (Isasi, 31)

20, martitzena

EGUNEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ Aranburu (Gipuzkoa etor., 46)

21, eguaztena

EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
GAUEZ Alberdi (Zubiaurre, 9)

22, eguena

EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
GAUEZ Cortina (Zubiaurre, 29)

23, barixakua

EGUNEZ Urizar (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)

telefono jakingarriak

- SOS deiak112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunerok: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

SUDOKUA

				3		5	
	6	7				8	
	1	2	6				9
8				9	4	7	
		7	3	1			6
7				5	6	9	
	5				2	1	
	2	4					

DENBORAPASAK

1	8	5	0	4	5	7	2	0
4	2	0	1	8	7	5	3	6
7	5	8	0	9	2	8	1	4
5	8	0	4	7	1	2	0	9
9	1	7	5	2	3	4	8	6
3	4	2	8	9	0	1	5	7
2	3	5	7	9	4	8	8	1
6	7	1	3	5	8	9	4	2
8	9	4	2	1	6	3	7	5

AURREKOAREN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai Eibarko erdialdean. 3 logela, egongela, sukalde, komun bi eta trasteroa. Igo-gailua. Guztiz berriztua eta argitsu. 130 m². Tel. 626-203838.

– Pisua salgai Barrena 7, 1. solairuan. 2 logela, egongela, sukalde eta bainua. Egin berria, estreinatu barik. 150.000 euro. Bidark Arkitektura. Tel. 662-086738.

– Pisua salgai Eibarren. 3 logela, egongela-jangela, sukalde eta komun bi. Garajea eta trasteroa. Eraiki berria eta jantzita. Saltzeko presa dugu. Tel. 618-400241 eta 648-848581.

– Pisua salgai Deban, Osio kalean. 3 logela, jangela-egongela, sukalde eta komun. Igogailuarekin. Berriztuta. 205.000 euro. Tel. 645-186309.

1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 609-901546.

– Pisua alokagai Amañan. 3 logela, egongela txikia, sukalde, komun eta balkoia. Jantzita. Eguzkitsua. Tel. 627-819186 eta 600-436615.

– Pisua alokagai Ermuan. Bi logelakoa. Igogailua. Prezio onean. Tel. 661-653160.

– Familia batek bi edo hiru logelako pisua hartuko luke alokairuan. Tel. 673-025316.

2. Motorra

2.1. Salgai

– Honda CBF 500 motorra salgai. 2007 urtekoa. 12.700 km. 3.500 euro. Tel. 943-530667.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Garaje itxia salgai Bittor Sarasqueta kalean. Tel. 685-710962.

– Garajea salgai San Pion. Tel. 685-702231.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

1.2. Errentan

1.3. Konpartitzeko

1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

2.1. Salgai

3. LOKALAK

3.1. Salgai

3.2. Errentan

3.2. Errentan

– Lokalak alokagai Ubitxa kalean. Behe solairuan eta kanpora begira. 80, 100, 150 eta 200 m²koak. Tel. 617-688311. Maria.

– Garaje itxia alokagai Ardantzan (Arrate Bide, 2). Handia eta berria. 115 euro. Tel. 647-952677.

– Marradun garajea alokagai Ardantzan (Arrate Bide, 2). Handia. 75 euro. Tel. 647-952677.

– Ilepaindegi berria alokagai arazo pertsonalengatik. Prezio onean. Tel. 667-806737.

– Asua-Errekan garaje itxia alokagai. Tel. 678-426136.

– Urkizu inguruan garaje marraduna alokagai. Tel. 609-453946.

– Garaje bi alokagai: itxia Txomon eta marraduna San Andres pasealekuan. Tel. 617-688311.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da garbiketa lanetarako eta nagusiak zaintzeko. Tel. 638-338816.

– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 617-571210.

– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 689-798284.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 618-050902.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauetan ere. Tel. 650-386345.

– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 680-526228 eta 943-531516.

4. LANA

4.1. Lan bila

4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

6.1. Salgai

6.2. Eman

6.3. Galdu/Aurkitu

6.4. Bestelakoak

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko: orduka, asteburuetan... Tel. 618-052967.

– Emakumea eskaintzen da etxetz-etxeko laguntzarako eta garbiketarako egiteko. Tel. 633-205039.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko asteburuetan. Tel. 628-789789 eta 943-208261.

– Pertsona nagusia eskaintzen da nagusiekin lan egiteko. Erreferentziak. Tel. 680-973549.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 669-966611.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 659-037882.

– Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko eta mekanizatueto edo pintore lanak egiteko. Tel. 656-781743.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 695-303237.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 608-147559.

– Emakumea eskaintzen da jostun lanak edo garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 617-043058.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 679-103469.

– Neska eskaintzen kamarera jarduteko, umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 675-607031.

– Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko. Tel. 658-371925.

– Neska eskaintzen da kamarera jarduteko eta sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 627-162936.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

– Irakaslea behar da akademia baterako. LHtik Batxilergo arteko klaseak emateko. laneskaintza-kademia@gmail.com

– Akademiarako irakaslea behar da. Tel. 652-763264.

5.2. Eskaintzak

– Klase partikularrak (Matematika, Ingelesa, Euskara) ematen dira. Kurtsoaren jarraipen orokorrak. Talde berriak urtarrilean. Tel. 620-720953.

– Kitarra elektrikoko klaseak ematen dira. Metodo erraza eta dibertigarria. Adin guztietarako. Merke. Tel. 679-740061.

– Lizentziadunak DBHko Matematika eta Fisika klaseak ematen ditu. Tel. 943-702089.

– Euskera klaseak ematen dira: azterketetarako prestaketa, perfilak, EGA, HABEren mailak. Tel. 620-608065.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Tableta grafikoa salgai. Wacom Intuos 4L, berri-berria. 340 euro. Ezaugarriak: wacom.eu orrian. Tel. 943-121891. Gaizka.

– Bizikleta estatikoa salgai. Oso egoera onean. 190 euro. Tel. 620-608065.

6.2. Eman

– Pegoran jartzeko 17 buzoiko lotea oparitzen da. Egoera onean. Marroi kolorekoak. Tel. 617-688311.


– Umearendako aulki tolesgarria oparitzen da. Deitu arratsaldean. Tel. 635-740726.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Asteburuan pailazoan saiotoako batean jertse morea (8 talla-koa) eta peluxe-zoko hartza agertu ziren. Jabeak ..eta kitto!-tik pasa daitezke.

EGUBERRIA
DA

Beste negoziare il prezzo
con il cliente prima di
partire



7 €
99

Top
8-16 urte **19** €⁹⁹

CÓCTEL

EIBARKO PLAZIA

50€ ko **EROSKETA**
EGINDA

OPARILOTE **1**
DOHAINIK



BARCELONA

EIBARKO PLAZIA

TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

Materia arriskutsuak / C.A.P.

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko
nazioarteko agentzia **ziurtagiriak**
lortzeko ikastaroak



T. Etxebarria, 7

Tel. 943 70 23 84

Tel. 943 70 23 78



Irribarreak
gaztetu egiten gaitu



Inplante eta
Hortz-Estetikan
adituak

Bista Eder Hortz Klinika
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75